



Hautagaiak uko egin ahal izango dute, 2020-2021 ikasturtetik aurrera, Hitzarmen Kolektiboan jasotako uko justifikatutako arrazoiez gain, 2020ko martxoaren 13ko Negoziazio Mahaian adostutako uko egite justifikatuen arrazoiengatik. Arrazoi horiek guztiak mahai horretan adostutakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

Akordioa honako hau da:

"1.- (...)

i) Bigarren paragrafoa gehitu:

Ikasturtean zehar egiten diren deietan, lanaldi partzialeko behar bat onartzeari uko egin dakioko bizilekutik 50 km baino gehiagora baldin badago. Kasu horretan, ikasturtean zehar berriro deituko zaio lanaldi partzialeko behar berriak eskaintzeko.

j) Gizarte Segurantzaren autonomo gisa altan egotea. Autonomoen ziurtagiria eta lan-bizitza aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritutako.

k) Administrazio batean izendapena izatea. Gizarte-segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiriaren bidez (ezinbestekoa) edota izendapena beraren bidez frogatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritutako.

l) Haurdunaldiko seigarren hilabetetik erditu arte. Egitate hori egiaztatzeko txostena aurkeztu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritutako.

m) 1. maila arteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak zaintzeko eta 2. maila arteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak zaintzeko, edota, elkarrekin bizitzeko, maila urrunagoko senideak zaintzeko, hautagaiak eskubidea izango du deitua ez izateko gutxienez 15 egunetan eta gehienez 2 urtetan. Deietan etete hori eskatzeko frogatu behar da gaixotasun larria edo ospitaleratzea. Uko justifikatu horrek ez du meritutako.

Gaixotasunaren larritasuna mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da gaixotasunaren data.

Bi urte horiek igaro ondoren, berriro deitzeko eskatu beharko dute. Bi urte horiek igaro ondoren ez badute berriro deitzeko eskatzen, zerrenda guztietatik kanpo geratuko dira.

Gutxienez 15 eguneko epea igarotakoan, eta bi urte igaro arte, edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrendetatik berriz deitzea. Bakarrik eskatu ahal izango da ikasturtean birritan kausa eta pertsonako (bi urteko muga zenbatuko da uko justifikatu hau alegatzen den lehenengo alditik kausa eta pertsonako).

Berriro deitzeko eskatzen duenean, behin bi urteko igarota edo lehenago, egiaztatu beharko du ordura arte egon dela deietan etenaldi hori ematea eragin zuen gaixotasun larria edo ospitaleratzea. Egiaztatzen ez badute, zerrenda guztietatik kanpo geratuko dira.

Bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, egoera hori lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko da.

n) Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo semearen edo alabaren gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik uko egitea era mugagabean justifikatuta egongo da. Uko justifikatu horrek ez du meritutako.

Gaixotasunaren larritasuna mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da gaixotasunaren data.

Gaixorik dauden pertsonak ezkontidea, izatezko bikotekidea edo semea edo alaba badira, horren amaiera jakinarazi beharko da, hau da, lan-eskaintzari uko egiteko arrazoia ospitaleko edo medikuaren altarekin amaituko da.

Egiaztatzen ez badu, zerrenda guztietatik kanpo geratuko dira.

Bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Halaber, egoera hori lan-bizitzaren bidez justifikatu beharko da.

Edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrendetatik berriz deitzea. Bakarrik eskatu ahal izango da ikasturtean birritan kausa eta pertsonako.



ñ) 12 urtetik beherako seme-alaben kontsulta medikoetara joatea. Familia-liburuaren eta bertaratze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatu.

o) Genero-indarkeriaren biktima izatearen kausa. Baldintza hori egiaztatu egin beharko da. Uko justifikatu horrek ez du meritatu.”.

”1.- (...)

1. atalean paragrafo hau gehitzea:

Uko egitearen justifikazioa:

Uko egite justifikatuko arrazoiren bat alegatzen duenak, 5 laneguneko epea izango du dagozkion egiaztagiriak aurkezteko arrazoia egiaztatzeko. 5 lanegun horiek igarotzen badira, hautagaiek uko egiteko arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu gabe, Lurralde Ordezkaritzak zuzenean kanporatuko die.

Halaber, uko egitera bultzatu zuen arrazoia amaitzen denean, halaxe frogatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da ordezkartzan”.

”3.- Pertsona batek lanaldi partzialeko ordezkapenak egiteko bitarteko kontratu bat gutxienez urte betean etenik gabeko aldian badu, izango du borondatez kontratu horri uko egiteko aukera, ikasturtearen lanpostuak esleitzeko prozesuan parte hartzeko eta lanaldi osoko kontratuak aukeratu ahal izateko. Libre gisa egon beharko da lanaldi osoko ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendetan”.